

UR ZERBITZUKO ABONADUEN KONTAGAILUAK IRAKURTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIORAKO BALDINTZA TEKNIKOAK

1-Xedea

Kontratuaren xedea udalerriko ur zerbitzuko abonaduen kontagailuak irakurtzea da, hau da, momentu jakin batean ur kontagailuak markatzen dauan kontsumo zenbatekoa eskuratzea.

2- Lana gauzatzeko epeak

Etxez-etxeko ur horniduraren araudiko 76.artikuluan ezarritako aldi ezberdinak kontutan izanda, kontratistak epe honeen barruan egin beharko dau irakurketa gestioa eta emaitzak entregatu Errenta Sailean:

- Urteko 1. hiruhileko errolda fiskalerako: Apirilaren 1etik maiatzaren 10erarte
- Urteko 2. hiruhileko errolda fiskalerako: Uztailaren 1etik abuztuaren 10erarte
- Urteko 3. hiruhileko errolda fiskalerako: Urriaren 1etik azaroaren 10erarte
- Urteko 4. hiruhileko errolda fiskalerako: Urtarrilaren 2tik otsailaren 10erarte

3- Lana gauzatzeko baliabidea

Aldi bakotxan irakurketen gestioa erregistratzeko baliabidea udalak kontratistaren esku itziko dauan psion-tresna izango da, horrela irakurketa erregistroentzako tresnaren eta udal aplikazio informatikoaren bateragarritasuna bermatuz. Beraz kontratistak ezin izango dau tresnaren programa informatikoa manipulatu eta edozein arazoren konponketa/irtenbidea udalaren esku egongo da. Zer esanik ez, kontratuz kanpoko bestelakoetarako ezin izango dauzala erabili psion kargetako daturik.

4- Udalerriko guneen sailkapena

Udalerrian abonaduen kokapena kontutan izanda, gune honeetan sailkatuko dira:

- Landa auzoetako abonaduak, auzo honeei jagokezalarik: Agirre, Almike, Ander Deuna, Arene, Arronategi, Artike, Demiku, Mañu eta Mikel Deuna.
- Herri barruko abonaduak : gainontzeko kale eta gune guztiak

5- Abonaduak

Hiruhileko bakotxarako irakurri behar dauzan kontagailuak eta euren kopurua kaleetatik sailkatutako zerrenda bidez eta Psion-tresnan jakon karga eginda emongo jakoz kontratistari. Tresnaren kapazitatearen arabera guztiak batera edo zatika emongo jakoz, baina, irakurketa gestiorako epearen hasiera baino egun bi lehenago guztiak edo lehenengo zatia.



6- Irakurketa gestioa

Kontratataren betebeharra ahalik eta kontagailu gehien irakurketak eskuratzea izanik eta ur kontagailuen kokapen ezberdinak kontutan izanda, honela egingo dau irakurketa gestioa:

1- Kolarretan baterian dagozan kontagailuak eta higiezinetatik kanpo bestelako lekuetan dagozan kontagailuak kontratistak zuzenean irakurriko dauz eta emaitza psion-tresnan erregistratuko dau. Era berean kontagailuaren kokapena erregistratuko dau kode honeek erabilita:

- B = baterian dagoala
- K = abonaduaeren higiezinetik kanpo dagoala

2- Higiezin barruetan dagozan kontagailuen kasuan, hau da, irakurketa hartzeko ezinbestekoa danean barrura sartzea, batez ere alde zaharreen eta eraikin zaharretan gertatzen dana, irakurtzera joango dan eguna/egunak kolarretan jarriko dauzan iragarki bidez jakinarazoko deutse auzokoei.

Helburua ahalik eta kontagailu gehien irakurtzea izanik, astelehenetik larunbatera irakurketarako ordutegi honetan bertaratuko da :

- Goizez : 8etatik 15etara
- Arratsaldez : 18etatik 20etara, behar izan ezkerero
- Gauetz : 20etatik 22etara, behar izan ezkerero.

Iragarritako gunean bertaratuta irakurri ahal dauzanak irakurriko dauz eta emaitzak psion-tresnan erregistratuko dauz. Era berean kontagailuaren kokapena erregistratuko dau H = higiezin barruan

Iragarritako egunean bertaratuta, higiezinera sartzeko inor ez egotean irakurri ezin badau, egoera hori adierazteko psion-tresnan "X" kodea jarriko deutso abonaduari eta I. eranskinean agertzen dan orria itziko deutso. Era berean kontagailuaren kokapena adierazteko H kodea erregistratuko deutso abonaduari H = higiezin barruan .

Itzitako orriaren ondorioz erabiltzaileak kontratistari deitu ezkerero, kontratistea bertaratuta hartuko dau irakurketea eta emaitza psion-tresnan erregistratuko dau.

Berh@z bulegoan hartzen diran erabiltzaileek ekarritako irakurketa orriak bertan erregistratuko dira, egite hori adierazten dauan EK kodea erantsita irakurketa erregistroari.

7- Irakurketa motak eta lan fakturagarriak



Irakurketa gestioan egindako lana irakurketak egitean erregistratu beharko kodeen bidez bereiztuta geratuko da, horrela bakotxaren esanahia honako hau izango dalarik :

- P kodea = "psion" aparailuan kontratistek erregistratutako irakurketa.
- ED kodea = kontratistek orria itzi ondoren, erabiltzaileak orria Berh@z bulegoan aurkeztuta deklaraturako irakurketea.
- KE kodea = kontratistek orria itzi ondoren, erabiltzaileak irakurketea hartzeko kontratisteari deitu ezker, honek orri bidez aurkeztutako irakurketea.
- X kodea = irakurri edota deklaratu barik geratu dana

Horrela, Kontratistak lana gauzatzearen adierazgarri izango dira P, KE eta ED kodeak erregistratuta daukiezanak, eta horreek izango dira lan fakturagarriak, hain zuzen ere.

8- Egiaztapenak

Aldiko errolda fiskala behin-betiko bihurtu orduko, AGU-aplikazioak kontsumo nabarmenak adierazteko daukan kontrolaren bidez, balizko kontsumo okerrak egiaztatuko dauz Errenta Sailak aldizka bakotxako lana gauzatzeko epearen amaiera egunetik 3 eguneko epe barruan, eta behar diran irakurketa egiaztapenak egin daiazan emongo jakoz kontratistari. Egiaztapenak eta euren emaitza, egiaztatzeke emoten jakon egunetik 8 eguneko epe barruan, egin eta Errenta Sailean entrega beharko dauzalarik.

Egiaztatzeke emoten jakozanen artean kontratistek berak hartutako irakurketak egiaztatzean lehenago hartutakoak txarto egozala agertzen diran kasuetan, ezin izango dau egiaztapen legez fakturatu, lana gauzatzean eukitako akatsaren aurrean egongo ginatkelako.

9- Irakurketa gestioko gertakariak

Irakurtzerakoan gerta daitekezan gora beheren barri emongo deutso Errenta Sailari, eta batez ere, irakurtzeko daukan abonaduren batek ur kontagailurik eukiko ez baleu.

10- Prezioak

Lan mota ezberdinengaitiko banakako gehiengo prezioak honeek izango dira:

- 1-Kontratistek herri barruan irakurritako kontagailu bakotxa (P edo KE kodedunak) 1,772 euro
- 2- Kontratistek landa auzoetan irakurritako kontagailu bakotxa (P edo KE kodedunak) 3,554 euro



3- Kontratistek orria itzi ezkeru, erabiltzaileak berak Berh@z aurkeztutako irakurketa bakoitza (EK kodedunak)..... 0,690 euro

4- Landa auzoetan egindako egiaztapen bakoitza 3,554 euro

5- Herri barruan egindako egiaztapen bakoitza 1,772 euro

11- Fakturak

8. atalean azaldutako egiaztapenak egiteko dagoan epe amaieratik 10 egunera aurkeztuko dau aldiko lanarengaitiko faktorea eta Errenta Sailaren onetsia jaso ezkeru, aurkezten dauan egunetik 60 egunera ordainduko jako.

12- Irakurketa akatsak

Kontratistek hartutako hiruhileko irakurketen % 0,2ko akats kopurua onargarria izango da. Handik gorakoa, barriz, kontratua gauzatzearen akatsa dala ulertuko da.

Errolda kaleratu ezkeru, zergadunek aurkeztutako errekurtsioak ebazteko egingo diran egiaztapenetan irakurketak txarto hartuta egozala agertzen diran kasuak izango dira kontutan hiruhileko akats kopurua zehazteko.

% 0,2tik gorako akatsdunei jagoken zenbatekoa (akats kopurua eta berak fakturatutako prezioaren emaitza) jarrita eukiko dauan bermetik deskontatuko jako.

Bermeon, 2009ko abuztuaren 4an.

